



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

zinegotziak

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2014ko ekainaren 9an, arratsaldeko 19:30etan, eta Udaleko alkate udalburua, Begoña Balerdi Urdampilleta izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorrotutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

113/2014 Dekretua

118/2014 Dekretua

128/2014 Dekretua

144/2014 Dekretua

148/2014 Dekretua

152/2014 Dekretua

164/2014 Dekretua

170/2014 Dekretua

180/2014 Dekretua

206/2014 Dekretua

115/2014 Dekretua

119/2014 Dekretua

129/2014 Dekretua

146/2014 Dekretua

150/2014 Dekretua

159/2014 Dekretua

166/2014 Dekretua

174/2014 Dekretua

189/2014 Dekretua

211/2014 Dekretua



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

213/2014 Dekretua
216/2014 Dekretua
228/2014 Dekretua
235/2014 Dekretua
258/2014 Dekretua
260/2014 Dekretua

215/2014 Dekretua
227/2014 Dekretua
234/2014 Dekretua
253/2014 Dekretua
259/2014 Dekretua
262/2014 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

**3.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA UDALAREN ARTEKO
HITZARMENA, EZINDUEN ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN
ESKUORDETZE ETA KUDEAKETA UDALAREN ESKU UZTEKO.**

Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko gizarte zerbitzuen sistema integratu bat antolatzen eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan herritar guztiei zerbitzu horiek jasotzeko eskubidea bermatzeko.

Lege horren 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua lehen mailako gizarte zerbitzuen barruan sartzen da eta zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalen egitekoa da.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arabera zerbitzu horiek udal eskumenekoak badira ere, udalek ezin dute zerbitzu horien finantzaketa bere gain hartu, ez baita gauzatu legearen bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan aurreikusitako finantza doiketa, zeinaren helburua baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa hornitu ahal izateko finantzaketa nahikoa bermatzea.

Bi administrazioek, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileen arreta hobetzearen, egoki ikusten dute beste lankidetzak hitzarmen bat egitea 2005ean sinatu zen eta gero 2013ko abenduaren 31 arte luzatu zen lankidetzak hitzarmenean jasotako zenbait alderdi eguneratzeko, besteak beste, hitzarmenaren xedea, zerbitzuaren estaldura-helburuak eta tarifak, eta zerbitzuaren finantzaketa sistema. Horretarako, beheko klausula hauek ezartzen dituzte.

Bi administrazioek uste dutela hitzarmenaren estipulazioak ez direla aldatu behar 2014. eta 2015. urteetan zehar udalei Gipuzkoako Aldundiak finantziario sistema beteko duela bermatzeko.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Aurrekoarekin bat, 2014ko martxoaren 25ean, Gipuzkoako Foru Aldundiako Diputatuen Kontseiluak, Ezinduen Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Finantzaketarako Hitzarmena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen artean sinatzekoa, onartu zuen.

Beraz, beharrezkotzat hartzen da udal honek eta Gipuzkoako Foru Aldundiako Gizarte Politikako Departamentuarekin administrazio-hitzarmen bat sinatzea, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuenak, xedatutakoaren arabera.

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta Udal Batzar honek, Batzorde Informatzailearen proposamena jarraiki, eta gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lizartzako Udalaren arteko Hitzarmena, Ezinduen Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Eskuordetze eta Kudeaketa Udalaren Esku Uzteko, onartzea:

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, MENDEKOEN ARRETARAKO ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO.

Donostian, 2014ko

ELKARTU DIRA

Alde batetik,

ANDER RODRIGUEZ LEJARZA jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatua, egintza honetarako Aldundiaren legezko ordezkari gisa ari dena, Diputatuen Kontseiluak 2014ko martxoaren 25eko bileran emaniko berariazko baimenarekin.

Eta bestetik,

MARIA BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA andrea, Lizartzako Udalaren legezko ordezkari gisa ari dena, Udal Batzarrak 2014ko ekainaren 9ko bileran emaniko berariazko baimenarekin.

AZALTZEN DUTE



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- I.- Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko gizarte zerbitzuen sistema integratu bat antolatzen eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan herritar guztiei zerbitzu horiek jasotzeko eskubidea bermatzeko.
- II.- Lege horren 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua lehen mailako gizarte zerbitzuen barruan sartzen da eta zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalen egitekoa da.
- III. Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arabera zerbitzu horiek udal eskumenekoak badira ere, udalek ezin dute zerbitzu horien finantzaketa bere gain hartu, ez baita gauzatu legearen bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan aurreikusitako finantza doiketa, zeinaren helburua baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa hornitu ahal izateko finantzaketa nahikoa bermatzea.
- IV.- Bi administrazioek, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileen arreta hobetzarren, egoki ikusten dute beste lankidetz hitzarmen bat egitea 2005ean sinatu zen eta gero 2013ko abenduaren 31 arte luzatu zen lankidetz hitzarmenean jasotako zenbait alderdi eguneratzeko, besteak beste, hitzarmenaren xedea, zerbitzuaren estaldura-helburuak eta tarifak, eta zerbitzuaren finantzaketa sistema. Horretarako, beheko klausula hauek ezartzen dituzte.
- V.- Bi administrazioek uste dutela hitzarmenaren estipulazioak ez direla aldatu behar 2014. eta 2015. urteetan zehar udalei Gipuzkoako Aldundiak finantziario sistema beteko duela bermatzeko.

Hori guztia ondorengo klausulei jarraituz,

KLAUSULAK

LEHENA.- Xedea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta LIZARTZAKo Udalaren arteko hitzarmen honen xedea da udalean mendekotasuna duten pertsonen ematen zaien Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak zehaztea.

BIGARRENA.- Zerbitzu estaldura eta baimendutako ordu kopurua.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, mendekotasuna duten pertsonentzako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren gehieneko ordu kopurua izango da Gizarte Politikako Departamentuak udal horretarako 2012an baimendutakoa, hau da, 2.600 ordu.

Hitzarmen honetako seigarren klausulan adierazitakoaren ondorioetarako, baimendutako gehieneko ordu kopuruaren % 80 2.080 ordu dira.

HIRUGARRENA.- Tarifa/orduak gehienez

Hau da seigarren klausulak arautzen duen foru finantzaziorako oinarri den mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzuaren gehienezko tarifa orduko:

- Orduko tarifa astegunetan: 18,87 €
- Orduko tarifa igande eta jaiegunetan: 22,66 €

Udalak emandako zerbitzuaren prezio/ordua gehienezko tarifa baino txikiagoa balitz, foru finantzazioa kalkulatzeko, udalak onartutako prezio/orduaren zenbatekoa hartuko litzateke oinarri.

Bi kasuetan, ondorio ekonomikoak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

Gehienezko tarifa horiek urtero eguneratuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko KPIaren igoeraren arabera. Gipuzkoako Foru Aldundiak urteko lehen hilabetearen barruan jakinaraziko dio Udalari eguneraketa horretatik ateratzen den tarifa.

LAUGARRENA.- Zerbitzua arautzea

Udalak etxeko laguntzaren zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeak ezartzen duen eskumen banaketara moldatu beharko du; horrek ez du berekin ekarriko zerbitzuari buruzko apartatuek baieztatzen dituen eta baztertzeko dituen jarduerak aldatzea, ezta onuradunak, eskuratzeko prozedurak eta erabiltzaileen partaidetza ekonomikoak ere.

BOSGARRENA.- Ordaintzeko prozedura.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin ordainduko du seigarren klausulan ezarritako zerbitzuaren foru finantzaketarako aldagaiak ezarrita ateratzen den



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

zenbatekoa, Udalak zazpigarren klausulan adierazitako informazioa bidali eta hilabeteko epean.

SEIGARRENA.- Foru finantzaketa

Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzuari emango dion finantzaketa zehazteko, aldagai hauek hartuko dira kontuan:

a) Hiruhileko fakturazioa:

Mendekotasuna duten pertsoneri emandako zerbitzu orduen kopurua eta hirugarren klausulan zehaztutako zerbitzuaren tarifa biderkatuta ateratzen den emaitza da.

b) Baterako ordainketa:

Mendekotasuna duten erabiltzaileek egindako ekarpenen batura da.

c) Foru finantzaketaren portzentajea:


Udalak baimendu diren orduen % 80 burutzen duen arte, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko du:

- 1.- 3.000 biztanle baino gehiagoko udalei, hiruhileko fakturazioaren eta erabiltzaileen ordainketa partekatuaren arteko aldearen % 85.
- 2.- 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalei, hiruhileko fakturazioaren eta erabiltzaileen ordainketa partekatuaren arteko aldearen % 90.

Klausula honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, 2012ko urtarrilaren 1eko errolda hartuko da erreferentzia gisa.

Udalak burututako orduak gainditzen badute baimendutako orduen % 80a, Gipuzkoako Foru Aldundiak % 80 horretatik aurrerako ordui (baimendutako orduen % 100eko mugara arte) dagokien fakturazioaren eta erabiltzaileen ordainketa partekatuaren arteko aldearen % 100 ordainduko du.

ZAZPIGARRENA.- Informazio sistema



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Udalak Foru Aldundiari behar diren datu guztiak eman behar dizkio, gutxienez prezioa eta zerbitzuaren kostua, pertsonako zerbitzu orduak eta erabiltzaileen baterako ordainketa. Helburu hauekin:

- 1.- Zerbitzuaren likidazioa egin ahal izatea.
- 2.- Zerbitzuaren egoera ezagutzea, mendekoei eta beste talde batzuei emandako arretari dagokiones eta estali gabeko beharrei dagokienez.
- 3.- IMSERSOri pertsonen datuak erraztea, SISAADek (Autonomiaren eta mendekotasunaren arretarako sistemaren informazio sistema) ezarritako baldintzei jarraikiz, araudi honek zehazten duen moduan:

- SSI/2371/2013 Agindua, abenduaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baita Autonomiaren eta mendekotasunaren arretarako sistemaren informazio sistema (EAO 302, 2013/12/18, 1. sek., 100833 or.)

- 2013ko abenduaren 27ko 1051/2013 Foru Dekretua, mendekotasun egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzeko 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen prestazio ekonomikoak arautzekoa (EAO 313, 2013/12/31, 1. sek., 107128 or.)

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Extranet SAD* informatika tresna emango du.

Tresna hori gorabehera, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalaren esku bertsio hobe bat jartzen badu, udalak hori erabiliko du.

Informazioa bidaltzeko gehienezko epea hauek izango dira:

- a) Lehenengo hiruhilekoa: Apirilaren 30a
- b) Bigarren hiruhilekoa: Uztailaren 31
- c) Hirugarren hiruhilekoa: Urriaren 31
- d) Laugarren hiruhilekoa: urtarrilaren 31

ZORTZIGARRENA.- Jarraipen Batzordea

Hitzartutako baldintzen jarraipena egiteko, aldeek adostu dute ordezkari-tza parekideko batzorde bat eratzea.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

BEDERATZIGARRENA.- Amaitzeko eta iraungitzeko arrazoiak

Hitzarmena amaitzeko edo iraungitzeko ondorengo arrazoietakoren bat gertatu behar da:

- a) Bi aldeen artean ados jartzea.
- b) Aldeetako batek hitzarmenari uko egitea, horrelakoetan, beste aldeari jakinarazi beharko dio hitzarmena amaitzeko aurreikusitako data baino bi hilabete lehenago, gutxienez.
- c) Aldeek hitzarmenean aurreikusitako betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.

HAMARGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egun berean sartuko da indarrean, eragin ekonomikoa urtarrilaren 1etik duelarik; eta indarraldia 2014ko abenduaren 31 artekoa izango da. Hitzarmenaren epea amaitzean besterik gabe luzatutzat joko da beste urte natural bateko aldietarako, eta betiere nahikoa eta egokia den aurrekontu xedapena badago luzatutako ekitaldirako.

BIGARRENA: Alkate-lehendakaria den, Begoña Balerdi Urdampilleta-ri ahalmena ematea ipatu hitzarmena Lizartzako Udalaren izenean eta ordezkarietan sina dezan.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkate-lehendakariak sinatuta.

4.- “LIZARTZAKO AHOTSAK” PROIEKTUARI JARRAIPENA EMATEKO LIZARTZAKO UDALAREN ETA BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

Lizartzako Udalak herriko ahozko ondarea jaso, antolatu eta hedatzeko proiektuarekin aurrera egiteko interesa duela eta orain arte euskalkiari buruz bildu den materiala eta honen ondoren aterako den material berria txukun atondu eta nahi dutenek erabiltzeko moduan jartzeko interesa du.

Badihardugu Euskara Elkarteak, herri hizkerak biltzeaz eta indartzeaz arduratzen denak, *Ahotsak.com* proiektua, *Euskal Herriko hizkera eta ahozko ondarea*, jarri zuen martxan, Gipuzkoako herri ezberdinetan egin diren eta egiten ari diren bilketa etnolinguistikoak koordinatzeko eta berriak egiteko asmoarekin eta, ondorioz, lan hau egiteko interesatu azaldu du.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta Udal Batzar honek, Batzorde Informatzailearen proposamena jarraiki, eta gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA. Lizartzako Udalak eta Badihardugu Euskara Elkarteak, Lizartzako ahozko ondarea jaso, antolatu eta hedatzeko proiektuaren aurre egiteko lankidetzarako administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan:

“LIZARTZAKO AHOTSAK” PROIEKTUARI JARRAIPENA EMATEKO LIZARTZAKO UDALAREN ETA BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

LANKIDETZA HITZARMENA

Lizartzan, 2014ko _____ren ___(e)an.

Lizartzako Udaletxean, goian aipatzen den egunean, **BILDURIK.**

Alde batetik: MARIA BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA, Lizartzako Udaleko Alkate-Udalburua, 15.954.680 V zk.dun NAN duenak, indarrean dauden legeek eskumentzen dioten ahalmena erabiliz, emandako ordezkari izaniz, haren izen eta ordezkari izaniz diharduela.

Beste ALDETIK: ASIER SARASUA ARANBERRI jaunak, Badihardugu Euskara Elkartearen lehendakaria, Otaola Hiribidea 1, Markeskua Jauregia helbidea eta IFK G20733416 duena, erakunde horren izenean eta ordezkari izaniz.

ADIERAZTEN DUTE:

- 1.- Lizartzakoko Udalak herriko hizkera jasotzeko interesa duela eta orain arte euskalkiari buruz bildu den materiala eta honen ondoren aterako den material berria txukun atondu eta nahi dutenek erabiltzeko moduan jartzeko interesa duela.
- 2.- Badihardugu Euskara Elkarteak, herri hizkerak biltzeaz eta indartzeaz arduratzen denak, *Ahotsak.com* proiektua, *Euskal Herriko hizkera eta ahozko ondarea*, jarri zuen martxan, Gipuzkoako herri ezberdinetan egin diren eta egiten ari diren bilketa etnolinguistikoak koordinatzeko eta berriak egiteko asmoarekin eta, ondorioz, lan hau egiteko interesa azaldu zuela.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

3.- Lizartzako Udalbatzarrak _____ko _____ren ____ (e)an emandako ebazpenean, Lizartzako ahozko ondarea jaso, antolatu eta hedatzeko proiektuari jarraipena emateko erabakia hartu zuen. Jarraian ebazpenean erabakitakoa:

LEHENENGOA:- Badihardugu Euskara Elkartearekin Lizartzako ahozko ondarea jaso, antolatu eta hedatzeko proiektuarekin aurrera egitea.

BIGARRENA:- Badihardugu Euskara Elkartearekin aipatutako proiektua egiteko duen gastua onartzea.

4.- Aipatutako erabakia gauzatzeko eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegintzako 113.6 artikuluan xedatutakoa betez, hitzarmen hau legezko egiten dela, honako klausula hauen arabera

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Badihardugu Euskara Elkarteak Lizartzako ahozko ondarea jaso, antolatu eta hedatzeko proiektuari jarraipena emango dio, honako eginkizunak betez:

- a) **Elkarrizketak kodifikatu:** grabatutako **2 zintaren laburpena** egin, minutuz minutu, eta grabazio bakoitzaren informazio guztia Datu Basean txertatu.
- b) **Soinu/bideo artxiboak editatu eta Interneterako prestatu.** Grabatutakoaren zatirik interesgarrienak aukeratu, editatu eta Interneterako formatu egokietan prestatu. Guztira **50 pasarte** edo artxibo berri jarriko dira ikusgai.
- c) **Aurkezpen ekitaldia:** Lizartzako Udalak aukeratutako egun eta orduan, parte hartu duten guztiei esker ona adierazi eta proiektua ezagutara emateko aurkezpen ekitaldi bat antolatzea. Badiharduguren ardura izango da, hiztunen elkarrizketen DVD kopiak egin eta ekitaldirako bideo-muntaia egitea.

Adjudikazio honen ondorioz sortutako lanaren jabetza eskubide guztiak udalarenak izango dira.

Badihardugu elkarteak Euskal Herriko Ahozko Ondarea jaso, landu eta zabaltzeko ahaleginetan egiten duen lana aitorturik eta lan horiei ahalik eta zabalkunderik handiena emateko asmoarekin, udalak egokitzat jotzen du bere jabetzako materialen kopia bat jasotzeko aukera eskaintzea Badiharduguri, interesa azaltzen badu. Edozein erataria ere, materialok hitzarmen honen helburuarekin bat



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

datozen ekimenetarako (herri-hizkera bildu eta indartzeko) erabili beharko dira, eta lanon jabea Udala dela adierazi beharko du, erabiltzen den kasu guztietan.

BIGARRENA.- Hitzarmen honen prezioa, 2.302 eurokoa izango da.

Aurreko paragrafoan agerturiko prezioa orokorra izango da; beraz, kontzeptu honen barruan lanaren exekuzioa, zergak, industria-onura, gastu orokorrak eta hitzarmenaren xedea exekutatzeko beharrezkoak diren beste gainontzeko gastuak sartu dira.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren xedea gauzatzeko epea 2014. urteko abendura artekoa izango da.

LAUGARRENA.- Hitzarturiko dokumentuak, hitzarmenean ezarritako epean aurkeztu beharko dira Lizartzako udaletxean, udaleko ordezkariak aztertu eta onespena eman diezaioten.

Hitzarmenaren xedearen prezioa honako era honetan ordainduko da:

- 2014. urtean 1.151 €
- 2015. urtean 1.151 €

Kasu guztietan, ordainketa egin aurretik, egindako lanaren txostena aurkeztu beharko da.

Ordainketak Badihardugu elkarteak emandako kontu zenbakian egingo dira.

BOSGARRENA.- Hitzarmen honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, aurreikusitako iraupena kontuan harturik.

SEIGARRENA.- Hitzarmena esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Halaber, bere konturakoak izango dira lan hauen edo euren exekuzioaren ondorioz sortutako gastu guztiak.

Hitzarmena, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Hitzarmena betetzeko beharrezkoak diren izaera pertsonaleko datuak indarrean dagoen legedia errespetatuz erabiliko dira, eta esleipendunak ezingo du datu hauek erabili hitzarmenaren xedearekin loturik ez dituen helburuetarako, ez eta hirugarrenei lagapenez eman ere.

Hitzarmena amaituz gero, tratatu diren izaera pertsonaleko datuak udalari itzuliko dizkio esleipendunak.

ZAZPIGARRENA- Herri-onurako arrazoiak direla eta, Lizartzako Udalak hitzarmena aldatzea izango du, behar berriak edo uste gabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Esleipendunak Administrazioaren aurretiazko baimenik gabe egiten dituen aldaketek ez dute Administrazio kontratatzailearen inolako betebeharririk sortuko.

ZORTZIGARRENA- Hitzarmen hau indarririk gabe geratuko da kasu hauetan:

- a) Sinatzaileak ados jarrita.
- b) Hitzarmenaren indarraldia amaitzen denean.
- c) Sinatzaileetako batek hitzarmen honetan hartutako konpromisoak betetzen ez baditu.
- d) Zuzenbidean egokia den beste edozein arrazoiengatik.

BEDERATZIGARRENA- Badihardugu Euskara Elkarteak hitzarmen honetan hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste aldeak eska dezake hitzarmena zuzen betetzea edota bertan behera uztea, eta hartara, Lizartzako Udalak ordura arte egindako diru ekarpenak osorik itzultzea.

BIGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

5.- 2013 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2013 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikuluko horren aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

6.- KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 1 zk.ko ESPEDIENTEA ONESTEA.

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikuluko ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Guzti hori kontutan hartuta, honako hau

ERABAKI DA:

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egunoak	Aldaketak	Behin-betikoak
I	Pertsonal Gastuak	219.515,42	270,49	219.785,91
II	Ondasun Arrunten eta Zerbitzu	243.875,03	19.223,22	263.098,25
III	Finantza Gastuak	600,00	-----	600,00
IV	Transferentzi Arruntak	137.854,68	1.000,00	138.854,68
VI	Inbertsio Errealak	42.039,03	-----	42.039,03
IX	Finantza Pasiboak	23.115,84	-----	23.115,84
GUZTIRA		667.000,00	20.493,71	687.493,71



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
I	Zuzeneko Zergak	109.625,93	-----	109.625,93
II	Zeharkako Zergak	12.500,00	-----	12.500,00
III	Tasak eta Bestelako Sarrerak	72.648,14	-----	72.648,14
IV	Transferentzi Arruntak	437.382,93	-----	437.382,93
V	Ondare-Sarrerak	100,00	-----	100,00
VII	Kapital Transferentziak	34.743,00	-----	34.743,00
VIII	Finantza Aktiboak	-----	20.493,71	20.493,71
GUZTIRA		667.000,00	20.493,71	687.493,71

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

7.- MOZIOAK


FRACKING EZ

Fracking Ez mugimenduak, Lizartzako Udaleko Osoko Bilkurari aurkezten dion mozioa haustura hidraulikoa ikertzeko abian dauden baimenen eteteari buruz.

Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) hidrokarburoak bilatzeko saiakera asko egon dira. Gure lurraldeak hidrokarburoetan aberatsak ziren beste lurralde batzuekin zituen antzekotasunengatik, petrolio enpresentzat zonalde interesgarria zirudien. Hainbat saiakera egon diren arren, ez dira inoiz izan uste bezain arrakastatsuak.

Hala ere, gasa metodo berrien bidez bilatzeko munduan zehar dagoen bolada berri baten ondorioz, gure lurraldea lehentasunezko eremua bihurtu da berriro. Ezberdintasuna, kasu honetan, zulaketa horizontala eta etapa anitzetako haustura hidraulikoaren arteko konbinazioan datza. Fracking bezala ezagutzen da teknika hau eta Ipar Ameriketara garatua izan da.

Eusko Jaurlaritzak sistema honen aldeko apustua egin du, horren frogarri nabariena SHESA, %100an diru publikoko enpresa, gure lurraldean eman diren hidrokarburoen ikerketa baimenen bultzatzailea izan dela da. Ez da interesa duen enpresa bakarra, baina bai bere baimenekin lurralde eremu handiena hartzen duena.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Egitasmo hau 2005ean hasi zen, hainbat baimenen eskaerarekin, horietako lehena 2006an eman zelarik. Enara deritzon baimena ezagunena bada ere, 2014ko apirilean EAE-n emandako 11 baimen daude (Ebro A, E, D, Libra, Usoa, Enara, Mirua, Usapal, Urraca, Geminis eta Saia) eta eskatutako eta emateko tramitean dauden beste 6 (Pegaso, Lurra, Lore, Galileo, Sustraia, Landarre) ere. Baimen guzti hauek EAE-n zati handi bat hartzen dute: Arabaren %88a, Bizkaiko %78a eta Gipuzkoako %40a inguru.

Teknika hauek erabili diren zonaldeetan hainbat arazo sortu dira, hala nola edateko uraren kutsadura, mugimendu sismikoen agerpena, airearen kutsadura, lurren okupazio eta putzuen inguruan bizi diren biztanleengan osasun arazoak besteak beste. Gaur egun, fracking-ak dakartzan ondorio kaltegarriak hainbat txosten eta ikerketa zientifikoetan erraz egiaztatu daitezke

Hau dela eta fracking-a egiten ari diren edo egiteko asmotan dauden lekuetan biztanlegoaren aurkako jarrera gero eta nabarmenagoa da. Instituzioetan ere hasia da islatzen aurkakotasun hori, eta hainbat lekuetan fracking-a mugatzen edo debekatzen dituzten, adierazpenak, galdeketak, legeak eta abar onartuak izan dira. Adibide gisa, Vermont estatuak, AEB-etan edo estatu frantziarrak, europan, fracking-a debekatu dute beraien lurraldeetan. Guregandik gertu, Nafarroan, Errioxan eta Kantabrian fracking-a debekatzen duten lege autonomikoak onartu dira. Eta estatu espainiarrean 400 udalerritik gora izan dira bere burua "fracking gabeko udalerria" bezala izendatu direnak.

Teknika hau sortzen ari den arazoan aurrean, eta berauek agertzeko dagoen aukera aurreikusi eta eragozteko xedez, mozio honen helburu da udalerrri honen mugen barruan teknika honen erabilera galaraztea.

Honen guztiagatik, Udalbatza honi aurkezten diogu akordio proposamen hau eztabaidatua eta onartua izan dadin:

- 1.- Lizartzako Udalbatzak fracking-aren bitartez aztertu, ikertu edo ustiatu daitezken hidrokarburo ez konbentzionaletarako Ikerketa Baimen guztiak bertan behera geratzea eskatzen dio Hidrocarburos de Euskadi enpresa publikoari.
- 2.- Lizartzako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio fracking-aren aurkako iritzia dela eta, jarrera aktiboa har dezan Lizartza "Fracking gabeko Udalerri" izendatuz eta, ondorioz, "Fracking ez" seinalea udalerrriaren sarreran jarritz.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

3.- Frackingaren debekua eskatzen duen Herri Ekimen Legegilearen helburuarekin bat egiten duenez, Lizartzako Udalbatzak udaletxeko harrera bulegoetan sinadurak jasotzeko orriak izango ditu eta herritar guztiak sinatzera gonbidatuko ditu.

Fracking ez mugimenduak aurkeztutako proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

EUSKAL KUTXEN ETORKIZUNARI BURUZKO MOZIOA

Joan den urtearen amaieran Estatu Espainolean Aurrezki Kutxak eta Fundazio Bankarioen, abenduaren 27ko, 26/2013 Legea onartu egin zen. Lege honek EAEko Aurrezki Kutxen Legeari nola eragingo dion –eta ondorioz KUTXA ren Estatutu eta Araudiari ere- oraindik zehazteke dago, eta beraz, honen garapena zalantza betetakoa daukagu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxak Fundazioak bihurtzeko urtebete baino gutxiago falta den une honetan, oraindik ez dakigu zein izango den beraien Gobernu Organo berriak osatu eta aukeratzeko prozedura.

Honez gain, azkeneko hilabeteetan, KUTXABANKeko hainbat bozeramailek banku honen %70aren salmentaren ezinbestekotasunaz ohartarazi egin dute, salmenta hau aipatu Legeak, Europako Banku Zentralak eta Memorandun Of Understansing-k (MOU) ustez plazaratutako aginduetan oinarrituz. Mota honetako adierazpenak, bilatzen duten helburua edozein izanik ere, hiritargoa nahasteko besterik ez dira egiten, izan ere ez Europak ezta Madrilek ere ez dute derrigortzen Kutxabanken pribatizazioa.

Gurea bezalako Udalentzat hil hala bizikoa da Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko tresna finantzario nagusiaren kontrol publikoa mantentzea. Ezinbestekoa da KUTXABANKek mende eta erdi baino gehiago funtzionatu duten Aurrezki Kutxen sorreraren izpirituari eustea, horrek bakarrik bermatu baitezake interes publikoaren defentsa, Gizarte Ekintzaren sustapena eta bertako herritar, ehun produktibo eta sare instituzionalaren interesen aldeko apustua.

Guzti honegatik, EHBilduko Udal Taldeak honako akordio puntuak aurkezten ditu Lizartzako Udaleko Udalbatzak eztabaidatu eta onartu ditzan:

1- Lizartzako Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei dei egiten die, KUTXABANKen pribatizatzea baztertu dezaten eta bere jarduera gure lurraldeko herritar zein finantza beharrianetara zuzendu dezatela eskatzen die.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

- 2- Lizartzako Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, KUTXAKo Gobernu Organoek Gipuzkoako jendartearen parte hartzea, bere ordezkartza proportzional efektiboa eta barne demokrazia eta gardentasuna bermatu dezaten. Eta horregatik dei egiten die egungo Gobernu Organoei etorkizunean gauzatu daitekeen estatutu edo araudiaren edozein aldaketan oinarri hauek bermatu ditzaten, jarrera hau baliatuz eta defendatuz izaera juridikoaren aldaketa proposa dezakeen edozein ekimenen aurrean, hala nola aurrezki kutxak eta finantza arloko beste entitateen marko normatiboaren edozein erregulazioaren aurrean ere mantenduz.
- 3- Lizartzako Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, honen Gobernu Organoak osatuko dituzten kideak entitate fundatzaileek, KUTXAKo langile eta ezarleek eta Gipuzkoako gainontzeko Udalek proposatuak eta hautatuak izan daitezela, eta horregatik egungo Gobernu Organoei etorkizunean gerta daitekeen edozein araudi edo estatutuen aldaketaren aurrean oinarri hau bermatu eta gordetzeko eskatzen die.
- 4- Lizartzako Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, KUTXAK bere KUTXABANKen parte hartze portzentajea gutxitzea suposa dezakeen edozein pribatizazio edo desinbertsio programa espresuki baztertu dezaten, gutxienez %32koa izaten jarraituko duelarik.
- 5- Lizartzako Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, erakunde horren Gizarte Ekintzaren defentsa irmoa eta beraren suspertzearekiko konpromisoa adierazi dezaten eta hortaz, Gizarte Ekintzaren izaera alda dezakeen edozein araudi moldaketarekiko hala nola bere dimentsioa murriztea eragin dezakeen edozein desinbertsioren aurkako jarrera izan dezaten.
- 6- Lizartzako Udalak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio aurreko puntuetan aipatzen diren oinarri eta edukiak etorkizunean 11/2012, Ekainaren 14koa den EAEko Aurrezki Kutxen Legeak izan dezakeen edozein aldaketan, edo balizko Fundazio Bankarioen Lege berri batetan, jaso ditzan.
- 7- Honako mozioa Gipuzkoako Foru Aldundia eta Batzar Nagusiei, Donostiako Udalari, KUTXAKo Kontseilari Orokor guztiei, Gizarte Ekintza Batzordeari,



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Administrazio Kontseiluari, KUTXAKo Lehendakaritzari eta Eusko Legebiltzarreko Talde Politiko guztiei helaraziko die.

Euskal Kutxen Etorkizunari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

TOPA PLATAFORMAREN MOZIOA

Tolosaldea da eskualde bakarra Gestio Publikoko Eskualdeko Ospitale Publikoa ez daukana, nahiz eta horrelako ospitale bat edukitzeko behar beste biztanle izan, 65.000, hain zuzen ere.

Egoera horrek, Osasun eta Kontsumo Sailak berak zabalduko foiletoren bidez aitortutako egoera horrek, ekarri du Tolosaldeak ezin izan duela urtetan baliatu osasun zerbitzuaz Gipuzkoako gainontzeko eskualdeen baldintza beretan.

Eskualdeko osasun arreta hobetzeko, Osasun eta Kontsumo Sailak proposatu zuen Tolosaldean berrantolatzea arreta espezializatua 2012ko urtarriletik aurrera. Horrek haxe zekarren: espezialitateen anbulatoriotik espezialistak desagertzea progresiboki; ospitaleratze orduan eskualdeko erreferentziako ospitalea Asuntzio klinika izatea, ezin izango zuelarik Tolosaldeko jendeak Donostia ospitalera jo, berrantolaketa egin bitartean egin izan zuen bezalaxe, hala nahi izan zuenean; eta ospitale zerbitzu berriak martxan jarriko zituztela.

Osasun arretaren berrantolaketa hori pairatu ondoren, TOPA plataformak egindako Herri Ebaluazioaren arabera, hasiera hartan baino okerrago gaude orain: eskualde honetan inoiz ezagutu ez diren itxoin-zerrendak daude; kexa asko; espezialistak ez diren medikuek atenditzen gaituzte; batzuetan botikak eskatzen dizkigute ospitaleratuta dauzkagun familiaratekoak tratatzeko, etab., hau da, jasotzen dugun osasun arreta geroz eta gehiago ari da urruntzen gainontzeko eskualdeetan ematen den zerbitzuetatik, nahiz eta guk haiek bezala ordaintzen dugun.

Gure iritziz, hau guztia dator eskualde honetan gertatzen ari den ospitale zerbitzuen ezkutuko pribatizaziotik, Arreta Espezializatuaren Berrantolaketa dela-eta. Gainera, Tolosaldean egiten ari direna Esperientzia Pilotu bat da, hain zuzen ere, pribatizazio hau etorkizunean aurrera eramateko Euskal Herri osoan.

Horregatik guztiagatik Eusko Jaurlaritzako Osasun Batzordera jo dugu, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan erabaki dute:



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari urtebeteko epean bermatzeko eskualdeko ospitale bat Tolosaldean, Osakidetza sare publikoaren barruan.
- Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari mantentzeko eta/edo berreskuratzeko 2011 arte espezialitateen anbulatorioan - Tolosalde osoari begira- funtzionatzen zuten espezialisten kontsultak.

Horregatik guztiagatik

DEI EGITEN DIEGU ORAINGO UDALBATZA OSATZEN DUTEN ALDERDI GUZTIEI JARRERA BAT HAR DEZATEN HONAKO PUNTU HAUEN GAINEAN:

- 1.- Mantentzea Espezialitateen Anbulatorioaren zerbitzu publikoa, 2011 arte funtzionatzen zuen moduan.
- 2.- Tolosaldeak Eskualdeko Ospitale Publikoa edukitzea, Gipuzkoako gainontzeko eskualdeek duten moduan. Horretarako, Asuntzio klinika publikatu egin behar da, gai horretan inplikaturik dauden agenteekin Lan Mahai bat sortu eta gero.
- 3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea geldiarazteko Euskal Herrian egiten ari diren pribatizatze ekintzak.
- 4.- Eskatzea Espainiako Gobernuari eta Madrilgo Kongresuari indargabetzeko 15/97 Legea, aukera ematen duena pribatizazio esperientzia hauek gauzatzeko.
- 5.- Dei egitea herritar guztiei parte hartzera Tolosan, ekainaren 7an, egingo den manifestazioan, lan-mahai bat sortzearen alde.

TOPA Plataformak aurkeztutako mozioa aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

ESAIT

EUROPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA (2007/C 303/01) (2007/C 303/01 21. artikuluan, 1 eta 2. puntuan dioena kontuan hartuta:

1. Bereizkeria oro debekatzen da, eta, bereziki, sexua, arraza, larru-kolorea, etnia-edo gizarte-jatorria, ezaugarri genetikoa, hizkuntza, erlijioa edo pentsaerak, iritzi



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

politiko edo beste edozein motatakoak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina edo sexu joera direla bide gauzatutakoa.

2. Naziotasunaren ondoriozko bereizkeria oro debekatzen da, Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuen eta Europar Batasunaren Tratatuen aplikazio-esparruan, tratatu horietako xedapen bereziak gorabehera.

Gurean aldiz, nahiz eta gizartearen gehiengoak bat egin, euskal selekzioa baztertua da nazioarteko txapelketetatik. Botere publikoek, naziotasun eskubidea bermatzeaz gain, gizartearen nahiriari modu positiboan erantzun beharko liokete, eskura diren bitartekoak erabiliz.

Zentzu honetan, erakunde honen konpetentzia euskal selekzioa baztertzea ekiditea ez bada ere, ekarpen xume bat egin lezake, dagozkien instituzioei, udaletxe eta herri/hiri honen aldarria helarazi eta egungo bazterketa ezar ez dezaten. Eta bazterketa hau kirol eremu guztietan ematen bada ere, egun mahai gainean dagoen eztabaida kontuan hartuta, alegia futbola eta Eurokopa, honako mozioa aurkezta da.

Hau dela eta, honako mozioa aurkezten da.

Mozioaren testua

Lizartzako Udalak, Lizartzako herritarren borondatearen ordezkari gisa, honako eskaria luzatzen du:

- 1.- Euskal selekzioak ofizialki nazioarteko txapelketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehiatu dezan aldarrikatzen du.
- 2.- Eta hori ahalbideratu ahal izateko, UDALAK, Espainiako Futbol Federazioari, Euskal Selekzioari ezarritako betoa kendu eta nazioarteko txapelketetan parte hartzea ahalbidera diezaiola eskatzen dio.

ESAIT-ek aurkeztutako mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

JUAN CARLOS BORBOIKOAREN ABDIKAZIOAREN AURREAN

Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioa, Frankismotik eratorritako eredu politiko-instituzionalaren krisi sakonean beste urrats bat gehiago izan da. Kolpe Militar Frankista eman zutenek, beraien jardunaren inolako ardura zein ondoriorik nozitu



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

gabe, eta zituzten pribilejio eta botere guneak mantenduz, “lotuta eta ondo lotuta” utzi zuten Estatu botereen etorkizuna. Estatuaren zatiezintasuna aldarrikatuz eta hori hala izan zedin armadari berme funtzioa emanaz itxi zuten erreforma. 1978 ko Konstituzio espainiarra, zeinaren ondorioz Juan Carlos Borboikoa Estatu Buru gisa geratu zen, Euskal Herriak ez zuen onartu. Euskal Herriak uko egin zion konstituzio horri, besteak beste, herri gisa etorkizuna libreki eraikitzeko eskubidea ukatzen zigulako eta benetako haustura demokratikorik ez emateaz gain, Hego Euskal Herria bi eremu administratibotan zatitzen zuelako. Frankismoaren amaieratik eratorritako eredu politiko-instituzional espainiarrak, demokrazia eza, gure herriaren ukazioa eta diktadura frankistarekiko haustura demokratiko eza ordezkatzeko dituzte.

Eredu politiko hau ordea, ez da gai izan Espainiako estatuaren menpeko herrien zein Estatuko herritarren aldarrikapen demokratikoak geldiarazteko. Gero eta nabarmenagoak eta indartsuagoak dira, estatu espainiarreko nazioek beraien etorkizunaren jabe izateko egindako aldarrikapenak. Atzeraezinezko prozesuak ari dira eraikitzen. Herriak, herritarrak eta eskubide demokratikoak protagonista diren prozesuak hain zuzen ere. Bitartean, eredu politiko-instituzional honen krisiaren adierazle argia da, PP eta PSOEek, eta ordezkatu duten bipartidismoaren zilegitasun eta sinesgarritasun krisia.

Testuinguru horretan eman da Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioa. Eta egoera honen aurrean, bistan da, ukazioan eraikitako eta politikoki agortutako marko politiko eta juridiko honi iraunarazteko itxuraldaketa operazio baten aurrean gaudela. Juan Carlos Borboikoaren abdikazioak ordea, ez dakar aldaketarik bere baitan: herrien ukazioan oinarrituriko eredu politiko-instituzionala ez bait da gainditu.

Erreforma inposatu zenean irekita zeuden gatazka politiko guztiak bere baitan mantentzen dira eta Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioarekin batera, 1977an abian jarritako Frankismoaren Erreformaren fasea amaitzea beharrezkoa da. Hori da herri honen aldarrikapena. Abdikazioaren aurrean, benetako haustura demokratikoa emateko unea da. Herrien eta herritarren eskubideak gauzatu ahal izateko. Espainiako herritarrek beraien sistema politikoa erabakitzeko erreferendum-a egitearen alde gaude. Baina Euskal Herria ez da eztabaida horren subjektua. Euskal Herritarrok gure erabakiak geuk hartzeko dugun eskubidearen errespetua aldarrikatzen dugu, etorkizunean libreki gure egitura politikoa eraiki ahal izateko. Herriok dugun erabakitzeko eskubidearen gauzapena nola egingo den erabakitzeko unea da.

Honen guztiaren aurrean, Lizartzako udalak honako adierazpen hau onartzen du:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioaren aurrean, Lizartzako Udalak benetako haustura demokratiko baten aldeko aldarrikapena egiten du, Euskal Herritarrok gure herriaren etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatuz. Era berean, herri honek ez dio inolako zilegitasunik onartzen espainiako Koroaren inongo ordezkari.

Bizi dugun egoera politikoaren aurrean, gure herriaren aitortza eta erabakitzeko eskubidea eskuratzeko helburuarekin lan egiteko deialdia luzatu nahi diegu Euskal Herriko alderdi politiko, sindikatu, eragile eta herritarrei.

Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioari dagokion mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:00etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Begoña Balerdi Urdampilleta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia